CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

# INTERNETAREN ERABILERA ARDURATSUA LEHEN HEZKUNTZAN IKASKUNTZA-ZERBITZUAREN BIDEZ: TXATAK ETA SARE SOZIALAK

Izaskun Bermejo

CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

# HELBURUAK

Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako **ikasleen errealitate digitala ezagutzea**

Txaten eta sare sozialen erabilera arduratsuaren garrantziari buruzko kontzientziazioa indartzeko **zerbitzu bat diseinatzea eta martxan jartzea**

Zerbitzua **baloratzea**

Proiektuari lotutako **ikaskuntza-prozesu pertsonala aztertzea**, lortutako ikaskuntzak identifikatzeko

CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

# ZERBITZUA

IKASBIDEA IKASTETXEA
(Durana, Araba)

| 1. saioa<br>Garapen fasea | | | |
|---|---|---|---|
| **Materiala** | Galdetegia (beteta), 3 kartel (ados, desados, zalantzan), egoeren esaldiak, kutxa, orri zuriak | **Non** | Gelan |
| JARDUERAK | | | |
| **1. Jarduera** | **Galdetegia aztertu** | **Denbora** | **10 min** |
| Galdetegian lortutako emaitzei buruz ikasleekin komentatuko dugu, horrela grafikoen bitartez, haien egoera ikus dezakete. | | | |
| **2. Jarduera** | **Ados ala decados** | **Denbora** | **25 min** |
| Ikasleei egoera batzuk aurkeztuko zaizkie. Hauek ados, desados ala zalantzan dauden adieraziko dute. Honetarako kartelak erabiliko dituzte, gelako punta batean ados kartela egongo da, beste puntan desados eta erdian zalantzan.<br><br>Egoerak:<br>1. Txaten bidez, lagunekin, familiarekin edo irakasleekin hitz egin ahal dut.<br>2. Etxean gaixorik egon naiz, txaten bidez gelan egin dutena galdetu ahal dut.<br>3. Gelako taldean ordu batean 200 mezu baino gehiago egotea.<br>4. Txatek urrutiko jendearekin hitz egiteko balio dute.<br>5. Egunero edozein ordutan bideodei asko egitea.<br>6. Txaten bidez mekanografia lantzen da.<br>7. Txaten bidez nire etxeko helbidea partekatu ahal dut.<br>8. Txatetan komentario itsusiak jaso ahal dituzu. | | | |
| **3. Jarduera** | **Zure txanda!** | **Denbora** | **5 min** |
| Ikasleei kutxa bat erakutsiko diet, han gaiarekin lotuta jakin nahi duten zerbait, haiek bizitako esperientziaren bat edo dena delakoa sar dezakete. Guztiak anonimoak izango dira eta baten-batek nahi badu berea bakarrik nik irakurtzea, aukera emango zaie. | | | |

| 2. saioa<br>Garapen fasea | | | |
|---|---|---|---|
| **Materiala** | 2 bideo, egoerak | **Non** | Gelan |
| JARDUERAK | | | |
| **1. Jarduera** | **Kutxa magikoa!** | **Denbora** | **10 min** |
| Ikasleek kutxan sartutako paperak irakurriko ditugu (beti anonimotasuna bermatzen eta norbaitek ez badu irakurri nahi, errespetatuz) | | | |
| **2. Jarduera** | **Txaten arriskuak** | **Denbora** | **15 min** |
| 1. Bideoa ikusi (grooming)<br>https://youtu.be/dD-s3lmegE?si=4jDMW2O6xh-lKuBW<br>2. Bideoa ikusi (ziberbullying)<br>https://youtu.be/zd4FMHD6N3A?si=QqxVMsf6uZXlkW7k | | | |
| **3. Jarduera** | **Zer egingo zenukete?** | **Denbora** | **15 min** |
| Egoera errealak aurkeztuko ditugu. Talde txikietan (4-5 pertsoneko taldeak), ikasleek egoera bakoitzean zer egingo luketela esan beharko dute.<br><br>Egoerak:<br>- Gelako taldean bat falta da.<br>- Zure izenean mezu bat bidali dute.<br>- Norbaitek iraindu zaitu. | | | |

LEHEN HEZKUNTZAko
4. eta 5. maila
**143 ikasle**

CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

# ONDORIOAK

1. Sare sozial erabilienak YouTube, WhatsApp, Snapchat eta Tik Tok dira.
2. Ikasleen % 88k ez dakite sare sozialak legalki erabiltzeko gutxieneko adina zein den.
3. Adin horretan (9-11 urte) ez dute jaso txaten eta sare sozialen erabilerari buruzko formakuntzarik.

CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

# ONDORIOAK

4. Orain ikasleek badakite ziberbullying edota grooming egoeretan nori eskatu behar dioten laguntza: gurasoei edota irakasleei.

5. Ikasleen ia % 90ak saioak disfrutatu ditu eta baliagarriak iruditu zaizkie.

6. Irakasleei zerbitzua beharrezkoa, aberasgarria eta hurbila iruditu zaie.

CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

# ONDORIOAK

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

7 Saioetan ezustekoak gertatu dira, baina primeran konpondu ditut.

8 Nik, gutxienez, haiengandik izugarri ikasteko aukera izan dut.

9 Etorkizunera begira, familiekin ere lantzea egokia izango zelakoan nago.

CBL
CAMPUS BIZIA LAB.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea
HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA

# INTERNETAREN ERABILERA ARDURATSUA LEHEN HEZKUNTZAN IKASKUNTZA-ZERBITZUAREN BIDEZ: TXATAK ETA SARE SOZIALAK

Izaskun Bermejo